

## BABES DEZAGUN LANGILE KLASEA, EZ KAPITALA

**Galizia, Euskal Herria eta Herrialde Katalanetako CIG, ELA, LAB eta Intersindical-CSC sindikatuok otsailean agenda sozialaren eta erabakitzeko eskubidearen aldeko adierazpena plazaratu genuen.**

Manifestu hartan egiaztatu genuen eskuin muturraren gorakada eta espanyiar Estatuko indar politikoen zati handi bat jarrera autoritarioetara lerratu zela, baita autodeterminazio eskubidearen aitorta oinarriztat hartuko duen irtenbide baten aurkako jarrera ere. Halaber, Gobernu berriari galdegin genion ezetsi zitzala azken hamar urteetan ezarritako lege antisozialak eta aitor zezala gure eremuan lan harremanen, pentsioen eta gizarte babeseko eredua erabakitzeko eskubidea.

**Bi hilabete igaro direlarik, salbuespenezko egoera honetan gogoeta hauek helarazi nahi ditugu:**

1. Adierazpen hau sinatzen dugun sindikatuok osasun publikoaren krisia kapitalismoaren beraren krisiaren baitan kokatzen dugu. Aspaldidanik salatzen ari gara krisi sistemiko horrekin batera datozen hainbat arlotako krisiak: zaintzarena, zerbitzu publikoek jasan dituzten murrizketena, lan eta gizarte eremuetaiko prekarizazio eta individualizazioa eta, horrenbestez, lotura sozialen haustura.
2. Oraingoan ere gure nazioen soberania gabezia berriro geratu da agerian. Salatu behar dugu COVID-19aren pandemia baliatu dela 155. artikulu bat zeharka sartzeko, gure lurraldeek berez duten autonomia urria indargabetuz. Propaganda unionistaren kanpaina betean gaude, desfile militar eta guzti; eta haren asmoa ez da osasun krisiari aurre egiteko indarrak biltzea, baizik eta krisi hori erabiltzea gure nazioetako langileen bizitzarako funtsezko gaietan erabakitzeko eskubidea deuseztatzeko.

Erabakitzeko eskubidea galdegiten dugu modu egokian aurre egiteko osasun krisiari, baita ondoren etorriko diren erronka ekonomiko, sozial eta politikoei ere.

**Bizi dugun salbuespenezko egoera honetan, gure sindikatuon iritziz lehentasuna da COVID-19aren hedapena mugatzea eta langileen zein herritarren osasuna zaintzeko neurriak hartzea.** Aldi berean beharrezkoak dira neurri sozialak krisi honen ondorioak ez diezaizkien soilik langile klaseari leporatu.

Espaniar gobernuak eta gobernu autonomikoak hartzen ari diren erabakiek eskubideak konfinatzen dituzte, berandu datozen bidegabek dira, eta langile klasarentzat zein kolektiborik zaugarrienentzat motzegi geratzen dira.

- Lehenik, oinarrizko jarduerak betetzen dituzten langile guztiei beharrezko babes neurri guztiak eskaini behar zaizkie. Bermatu egin behar da ere lana modu egokian egiteko langile kopurua, hauen osasuna zaintzeko eta oinarrizko jardueretan lanean ari diren pertsona hauek gaixotasuna kutxa ez dezaten.
- Gure sindikatuek exijitu dute funtsezkoak ez diren jarduera guztiak geldi daitezela. Pandemiari muga jartzeko konfinamendu zorrotzagoa behar da; hau komunitate zientifikoak ere eskatu du.

Espaniar gobernuak ezarri zuen oinarrizkoak ez diren jardueren itxiera. Erabaki hau berandu hartu da, eta ezin okerrago kudeatu dute; areago, horren ostean argitzeko ohar bat argitaratu dute, dekretua

aldarazi nahian. 48 ordu igaro ez zirelarik, amore eman zieten botere ekonomikoaren presioei, eta gero hartu zen erabakiarekin iruzur egin zuten ikuspuntu demokratiko eta juridikotik.

Gaur, inoiz baino areago, politika publikoak ezinbestekoak dira, eta baliabide guztiak gehiengo sozialen alde baliatu behar dira, neurri guztiak hartzeko inor baztertuko ez duen gizarte-babeserako, zeinak langile klase guztiari bermatuko dizkion empleguak, soldatak eta diru-sarrera duinak.

Erabaki ausartagoak behar dira finantzaketa publikoa ziurtatzeko, aberatsenen eta enpresa handien gaineko zerga bidez eta egun esku pribatuetan dauden ekonomiako sektore estrategikoetan (bankuak, konpainia elektrikoak, etab.) esku hartze publikoa bideratuz; hauek dira politika neoliberalak alde batera utzi eta hartu beharreko bidezko neurrietako batzuk.

Lau sindikatuok nabarmendu nahi dugu herritarrak oro har eta bereziki hainbat sektoretako langileak -osasungintza, garbitasuna, adinekoen zaintza, elikagaiak, garraioa eta nola edo hala jendea artatzen dutenak- zer nolako konpromiso zibikoa ari diren erakusten; haistik, salatu beharra dago lanean ari direla babesteko bitarteko nahiko eta egokirik gabe, eta ez dagoela aski langilerik eginkizun guztiei aurre egiteko. Krisiak agerian jarri du arlo publikoa zein garrantzitsua den eta azken aldiko murrizketek zenbateko kaltea eragin duten. Baino gainera, frogatu digute pertsonen bizitza kokatu behar dela politiken erdigunean. Krisiak adierazi du lanbide feminizatuak direla prekaritaterik handiena eta aitortzarik eskasena dutenak; hain zuzen krisia amaiarazteko ezinbestekoak diren sektoreak.

Sindikatuok ere salbuespenezko baldintzetan ari gara lanean. Horregatik dei egiten diegu gure afiliatuei lotura kolektiboak indar ditzaten eta modu aktiboan implika daitezen jenderik ahulena defenditzeko, enpresetan zein hauetatik kanpo.

Azkenik, otsaileko adierazpenean adierazi genituen konpromisoak berretsiko ditugu. **Ez dugu onartuko krisi berri honen ondorioak langileen gain erortzerik, horrela pobrezia areagotuz. Borrokan jarraituko dugu justizia sozial eta ekologikoa oinarritzat hartuko duen eredu baten alde eta lanaren zein aberastasunaren banaketa justuagoa izan dadin.** Bide batez soberania betea galdegiten dugu eremu sozioekonomiko bat eraikitzeko, baita geurea den lan harreman eta gizarte babeseko marko bat ere.

**Mitxel Lakuntza, Paulo Carril, Garbiñe Aranburu eta Carles Sastre  
(ELAko, CIGeko, LABeko eta Intersindical-CSCko idazkari nagusiak)**



# PROTEJAMOS A LA CLASE TRABAJADORA, NO AL CAPITAL

**Los sindicatos CIG, ELA, LAB e Intersindical-CSC, de Galiza, Euskal Herria y Països Catalans, suscribimos en febrero una “Declaración por una agenda social y el derecho a decidir”.**

En dicho manifiesto constatamos el auge de la extrema derecha y el deslizamiento hacia el autoritarismo de buena parte del arco político del Estado español, así como la negativa a una solución política basada en el reconocimiento del derecho a la autodeterminación. Así mismo, reclamamos al nuevo Gobierno la derogación de las leyes antisociales impuestas en la última década y el derecho a decidir en nuestro ámbito el modelo de relaciones laborales, pensiones y el sistema de protección social.

**Dos meses más tarde, ante esta situación de excepcionalidad, queremos trasladar las siguientes reflexiones:**

1. Los sindicatos firmantes situamos la crisis de salud pública dentro de una crisis capitalista. Como venimos denunciando desde hace años, esa crisis sistémica conlleva una crisis de cuidados, de recortes en los servicios públicos, de precarización e individuación laboral y social y, consecuentemente, de ruptura de los vínculos sociales.
2. Una nueva muestra de la falta de soberanía de nuestras respectivas naciones. Denunciamos la utilización de la pandemia del COVID-19 para imponer un artículo 155 encubierto, invalidando la ya de por sí insuficiente autonomía de nuestros territorios. Asistimos a una campaña de propaganda unionista con desfiles militares incluidos, que no busca aunar esfuerzos para hacer frente a la crisis sanitaria, sino utilizar la crisis sanitaria para anular la capacidad de decidir sobre cuestiones fundamentales para la vida de los trabajadores y trabajadoras de nuestras naciones.

Reclamamos el derecho a decidir para hacer frente eficazmente a la crisis sanitaria así como a los retos económicos, sociales y políticos que deberemos enfrentar durante y después de dicha crisis.

**En esta situación excepcional que estamos viviendo, para nuestros sindicatos es prioritario limitar la expansión del COVID-19 y adoptar medidas para cuidar de la salud de las y los trabajadores y de la ciudadanía.** Al mismo tiempo se necesitan medidas sociales para que las consecuencias de esta crisis no recaigan exclusivamente en la clase trabajadora.

Las medidas que están adoptando el gobierno español y los gobiernos autonómicos confinan los derechos, vienen tarde, son injustas, son insuficientes para la clase trabajadora y para los colectivos más vulnerables.

- En primer lugar, se debe proporcionar a todos los trabajadores y trabajadoras que realizan actividades esenciales todas las medidas de protección que necesitan. También se debe garantizar el número necesario de trabajadores y trabajadoras para poder realizar su trabajo de forma adecuada, para poder cuidar su salud, y para que estos trabajadores y trabajadoras que trabajan en actividades esenciales no propaguen la enfermedad.
- Desde nuestros sindicatos hemos exigido la paralización de todas las actividades no esenciales. Para poner límites a la pandemia se precisan medidas de confinamiento más estrictas; esto es algo que también ha reclamado la comunidad científica.

El gobierno español decretó el cierre de las llamadas actividades no esenciales. Esta medida llegó tarde y con una gestión desastrosa a la que se suma la posterior publicación de una nota aclaratoria

para intentar modificar el decreto. En menos de 48 horas, ha terminado cediendo ante las presiones del poder económico mediante una decisión fraudulenta en nuestra opinión desde una perspectiva democrática y jurídica.

Hoy más que nunca, son necesarias políticas públicas y concentrar todos los recursos en favor de las mayorías sociales para adoptar todas las medidas para una protección social sin exclusiones, que garantice el empleo, los salarios e ingresos dignos para toda la clase trabajadora.

Se necesitan medidas más audaces para asegurar una financiación pública, vía impositiva a las grandes fortunas y las grandes empresas, la intervención pública de sectores estratégicos de la economía, hoy en manos privadas (banca, eléctricas, etc); son algunas de las medidas justas y necesarias, dejando atrás las políticas neoliberales.

Los cuatro sindicatos queremos subrayar el compromiso cívico de que están haciendo gala la ciudadanía en su conjunto, y en especial las trabajadoras y trabajadores de sectores como la sanidad, limpieza, el cuidado de mayores, la alimentación, el transporte, y en general todos aquellos trabajos que suponen atender y cuidar de la gente, denunciamos que están desarrollando su trabajo sin los medios de protección suficientes ni adecuados, ni con personal suficiente para llevar adelante todas las tareas. La crisis está poniendo en evidencia la importancia del sector público y lo que los recortes de los últimos tiempos han supuesto. Pero además han puesto en evidencia que la vida de las personas debe estar en el centro de las políticas. Si algo demuestra esta crisis es que las profesiones feminizadas son las más precarizadas y desvalorizadas, y son cruciales para ponerle fin.

También las organizaciones sindicales estamos trabajando en condiciones excepcionales. Por eso hacemos un llamamiento a nuestra afiliación a fortalecer los vínculos colectivos y a comprometerse activamente en la defensa de los más vulnerables, tanto dentro como fuera de las empresas.

Para finalizar, reafirmarnos en los compromisos que ya adoptamos en la declaración de febrero. **No vamos a permitir que las consecuencias de esta nueva crisis recaigan en las y los trabajadores, incrementando la pobreza laboral. Vamos a seguir luchando por un modelo basado en la justicia social y ecológica, el feminismo y un reparto más equitativo del trabajo y de la riqueza.** Reclamando plena soberanía para construir un espacio socioeconómico, y un marco propio de la relaciones laborales y protección social.

**Mitxel Lakuntza (secretario general de ELA), Paulo Carril (secretario general de CIG), Garbiñe Aranburu (secretaria general de LAB) y Carles Sastre (secretario general de Intersindical-CSC)**

